



## GOBERNU BATZARRA

2021.10.19

|  |   |
|--|---|
| <b>Alkatea:</b><br>Olatz Peon Ormazabal  | Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeita bateko urriaren hemeretziaren, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko: |
| <b>Bertaratutako zinegotziak:</b><br>Xabier Balerdi Tolosa<br>Begoña Tolosa Mendia<br>Nerea Letamendia Beloso<br>Patxi Amantegi Zubiria<br>Jose M <sup>a</sup> Villanueva Telleria | 1. Akta hau onartzea: 2021eko urriaren 13ko ohiko bilkurakoa.<br>2 .Iurramendi baratze parkearen lursailak esleitzeko deialdiaren oinarriak onartzea.   |
| <b>Idazkari akzidentala:</b><br>Karmele Contreras Goikoetxea   |   |

### **1. AKTA HAU ONARTZEA: 2021EKO URRIAREN 13KO OHIKO BILKURAKOA.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2021eko urriaren 13an egindako batzarreko akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

### **2 .IURRAMENDI BARATZA PARKEAREN LURSAILAK ESLEITZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK ONARTZEA.**

|                     |  |
|---------------------|--|
| <b>Kokalekua:</b>   | “24. lurre” hirigintza esparruko “24.1 lurramendi pasealekua” azpiesparrua |
| <b>Espedientea:</b> | 2021INB10001   |

### **AURREKARIAK**

- Tolosako Udalak, Ekogune fundazioarekin elkarlanean, Tolosako Baratze Parkea sortu zuen, eta 2013. urtean lurramendiko baratze parkea martxan jarri zen.
- 2013ko maiatzaren 22an, GAOOn “Tolosako Baratze Ekologikoak adjudikatzeko eta kudeatzeko araudia” argitaratu zen, besteak beste zehaztuz baratzen esleipena lau urtetarako izango zela.
- 2021. urtean Baratze Parkeak zortzi urte beteko dituen bezala, bigarren aldiz baratzen esleipena egin nahi da eta, egokiena denez datorren udaberriko landaketa garairako



esleipenak eginak egotea, beharrezkotzat jo dute deialdi berria aurtengo udazkenean egitea.

- 2021eko irailaren 24an, Ingurumen eta Landa eremuko teknikariak txosten teknikoa egin zuen.

## ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

I. 2013ko otsailaren 14an, Tolosako Udalak konpromisoa hartu zuen Muñoa Fundazioarekin Baratze Parkearen proiektua gauzatzeko. Eta, besteak beste, Muñoa Fundazioak bere gain hartu zuen, behin lursaila egokitu eta proiektuari hasiera eman ondoren, Tolosako Udalari lursailen erabilera 2021. urtera arte lagatzeko betebeharra.

Era berean, adierazi zuten aipatutako konpromisoan zehaztutako obligazioek ez zutela baliorik gabe utziko 2008ko irailaren 22an bi aldeek sinatutako hirigintza hitzarmenean adostutakoa eta, beraz, hartutako konpromisoa hirigintzako hitzarmen horren mende geratuko zela. Hortaz, berariaz adierazi zuten lursailen titulartasuna pertsona batetik bestera igaroko balitz, titular berriak izango lituzkeela hartutako obligazio eta konpromisoak.

Gaur-gaurkoz, hirigintzako-hitzarmen hori azkenduta dago eta "24.1 lurramendi pasealekua" azpiesparruko Plan Berezia behin betikoz onartua; eta baratze gehienak okupatzen dituen lursaila aurreikusten du espazio libreen sistema orokor bezala. Hori dela eta, birpartzelazio-proiektua behin betikoz onartu, eta Jabetza Erregistroan inskribatutakoan, Tolosako Udalaren titulartasunera igaroko da, eta hark hartuko ditu bere gain eremu horretako obligazio eta konpromisoak.

Elkarteei zuzendutako baratzeak hartzen dituen eremuari dagokionez berriz, 2019ko urtarrilaren 18az geroztik, Tolosako Udalarena da, eta hala dago inskribatuta Jabetza Erregistroan. Beraz, eremu horri dagokionez, Tolosako Udalarena da obligazioa eta konpromisoa.

II. Tolosako Baratze Ekologikoak adjudikatzeko eta kudeatzeko Araudiak zehazten ditu Tolosako Baratze Parkeko lursailen erabilera, gozatzeko eta aprobeixamendua arautzeko behar diren baldintzak eta, baita, baratze horiek adjudikatzeko prozedura, baratzetako laborantza-jarduera eta erabiltzaileen erantzukizuna.

Besteak beste, honako hau zehazten du erregimen aplikagarriari eta erregulazioari dagokionez:

*"1. Aisialdirako Udal Baratze hauen erabilera eremu publikoko ondasunen erabilera komun berezi gisa kalifikatu behar da, Tokiko Korporazioen Ondasunen Araudiko 75.1.b) artikulua dioenari jarraiki; hori dela eta, lizentzia lortu beharko da, eta lizentzia kopurua mugatua denez, baratze ekologikoen ustiapenerako erabilera-baimena eskatzaile guztien*



*arteko lizitazio bidez adjudikatu beharko da. Hala ere, Tolosako Udalak gorde ahal izango ditu interes taldeei espezifikoki zuzenduriko lursail batzuk.*

*2. Beraz, eremu publikoko ondasunak erabiltzeko baimen bat denez gero, informazio publikorako epe bat ezarriko da, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa den azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 86.1. artikuluan aurreikusitako terminoen arabera.*

*3. Aisialdirako baratze ekologikoen adjudikazio, jabetza eta gozatzeari aplikatuko zaion erregimena Araudi honetan aurreikusitakoa izango da.*

*4. Subsidiarioki, aplikatuko dira Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legean jasotako arauak zein Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamenduan jasotakoak”.*

**III.** Aurkeztutako lurramendi Baratze Parkearen lursailak esleitzeko deialdiaren oinarrien helburua da Tolosako lurramendi egoitzaren aurrean jarriko diren Tolosako Baratze Parkeko 81 udal baratzeak erabiltzeko lizentzien emakidako baldintzak ezartzea. Horrek adierazten du, besteak beste, erabiltzeko erregimena eta baldintzak aipatutako Araudian zehaztutakoak izango direla. Hortaz, oinarrietan aurreikusten ez diren egoeretan, aintzat hartu beharko da Araudiak adierazten duena.

**IV.** lurramendi Baratze Parkearen lursailak esleitzeko deialdiaren oinarriak onesteko eskuduntza Tokiko Gobernu Batzordeari dagokio, 2019/1228 Alkatetza Dekretuak adierazitakoari jarraituz.

## **AZTERKETA JURIDIKOA**

Kontuan izanik Tolosako Udalak 2013ko otsailaren 14an Muñoa Fundazioarekin Baratze Parkearen proiektua gauzatzeko hartutako konpromisoa, eta ikusirik aurkeztutako lurramendiko Baratze Parkearen lursailak esleitzeko deialdiaren oinarriak bat datozela Tolosako Baratze Ekologikoak adjudikatzeko eta kudeatzeko Araudiarekin, onargarria da onespena ematea.

Aurrekariak kontuan izanik, txostenak eta aplikatu beharreko lege-xedapenak eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.** Onspena ematea lurramendiko Baratze Parkearen lursailak esleitzeko deialdiaren oinarriei. Oinarriak honako hauek dira:



**DEIALDIA: LIZENTZIEN ADJUDIKAZIOA  
IURRAMENDIKO AISIALDIKO UDAL  
BARATZEAK ERABILTZEKO**

**CONVOCATORIA PARA LA ADJUDICACIÓN  
DE LICENCIAS PARA EL USO DE  
HUERTOS DE OCIO MUNICIPALES DE  
IURRAMENDI**

**LIZENTZIEN ADJUDIKAZIO-DEIALDIRAKO  
OINARRIAK IURRAMENDIKO AISIALDIKO  
UDAL BARATZEAK ERABILTZEKO**

**BASES PARA LA CONVOCATORIA DE LA  
ADJUDICACIÓN DE LICENCIAS PARA EL  
USO DE HUERTOS DE OCIO MUNICIPALES  
DE IURRAMENDI**

- 1.- Deialdiaren helburua
- 2.- Erabilpen-erregimena eta prezioa
- 3.- Onuradun izateko baldintzak
- 4.- Eskabide-orria
- 5.- Eskaerak aurkezteko epea eta tokia
- 6.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa
- 7.- Aurretiko zerrenda eta erreklamazioak
- 8.- Onartutakoen behin betiko zerrenda
- 9.- Adjudikatzeko era: zozketa publikoa
- 10.- Adjudikaziodunen behin-behineko zerrenda eta itxarote-zerrenda
11. Behin betiko zerrenda, itxarote-zerrenda eta adjudikatzeko prozedura
12. Behin betiko adjudikazioaren ondorengo betebeharrak.
13. Erregimen juridikoa

- 1.- Objeto de la convocatoria
- 2.- Régimen de uso y precio
3. Condiciones para ser beneficiario
- 4.- Impreso de solicitud
- 5.- Lugar y plazo para presentación de solicitudes
- 6.- Documentación a aportar
- 7.- Lista previa y reclamaciones
- 8.- Listas definitivas de admitidos.
- 9.- Forma de adjudicación: sorteo público
- 10.- Lista provisional de adjudicatarios y lista de espera
- 11.- Listas definitivas, lista de espera y proceso de adjudicación
- 12.- Obligaciones posteriores a la adjudicación definitiva
- 13.- Régimen jurídico

I. ERANSKINA. BARATZEN PLANOA  
II. ERANSKINA. ESKAERA-ORRIA  
III. ERANSKINA. ZINPEKO  
DEKLARAZIOAREN EREDUA

ANEXO I. PLANO DE LAS HUERTAS  
ANEXO II. IMPRESO DE SOLICITUD  
ANEXO III. MODELO DECLARACIÓN  
JURADA

**IURRAMENDIKO AISIALDIKO UDAL  
BARATZEAK ERABILTZEKO  
LIZENTZIEN ADJUDIKAZIOA  
ARAUTZEKO BALDINTZA PLEGUA**

**PLIEGO DE CONDICIONES PARA  
REGULAR LA ADJUDICACIÓN DE LAS  
LICENCIAS DE USO DE LOS HUERTOS  
DE OCIO MUNICIPALES DE  
IURRAMENDI**

**1.- Deialdiaren helburua**

Deialdi honek helburu hauxe dauka: baldintzak ezartzea Tolosako lurramendi egoitzaren aurrean jarriko diren Tolosako

**1.- Objeto de la convocatoria**

La presente convocatoria tiene por objeto establecer las condiciones para la adjudicación de las licencias de uso de los 81 huertos



*Baratze Parkeko 81 udal baratzak erabiltzeko lizentziak esleitzeko.*

*Baratzen zein haien instalazioen ezaugarriak 1. eranskinean daude jasota: Tolosako Baratze Parkeko Planoa. Parkeak 81 baratze ditu, honela banatuta:*

*2 baratze desgaitasunak dituztenentzat erreserbatuta.*

*80 m<sup>2</sup>-ko 4 baratze irabazi asmorik gabeko elkarteentzat.*

*40 m<sup>2</sup>-ko 75 baratze.*

*Parkearen gainontzeko azalera erabilera komunitariokoa da (zerbitzuen eraikina, bideak, ureztatzeko putzuak, konposta egiteko guneak...).*

## **2.- Erabilpen-erregimena eta prezioa**

*Baratzeak erabiltzeko lizentziak prekarioan emango dira, urtebeterako, eta gehienez ere 4 urteraino luza daiteke.*

*Baratzeek zenbakia ipinita edukiko dute, 1etik 81era.*

*Erabiltzeko erregimena eta baldintzak lizentzian eta baratze ekologikoak adjudikatzeko eta kudeatzeko araudian ezarritakoak izango dira. Araudi hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2013ko maiatzaren 22an.*

*Erregelamendu honen 8. artikularen arabera lagatako lizentziaren titulua «prekario» eran izango da, eta Udalak, interes publikoko kausa justifikatuak badaude, edozein unetan kendu ahal izango dio lizentzia edozein erabiltzaileri, Udalaren aldetik inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izan gabe.*

*Elkarteei dagokien baratzeen eremua, epe motz-ertainean, Kabia fundazioaren eskura pasatuko da, Udalak eta Kabia fundazioak sinatutako hitzarmen bat dela medio. Horrek, hasiera batean, baratze hauei erabilera*

*municipales de Tolosako Baratza Parkea, que se acondicionarán en los terrenos sitios frente a la Residencia Iurramendi de Tolosa.*

*Las características de las huertas y sus instalaciones son las recogidas en el Anexo n.º 1: Plano de Tolosako Baratza Parkea. El parque consta de 81 huertas distribuidas de la siguiente forma:*

*2 huertas reservadas para minusválidos.*

*4 huertas de 80 m<sup>2</sup> para asociaciones sin ánimo de lucro.*

*75 huertas de 40 m<sup>2</sup>.*

*El resto de la superficie del parque es de uso comunitario (edificio de servicios, caminos, pozos para el riego, zonas de compostaje...).*

## **2.- Régimen de uso y precio**

*Las licencias para el uso de los huertos se concederán en precario y para un periodo de 1 año, prorrogable hasta un máximo de 4 años.*

*Los huertos estarán numerados del 1 al 81.*

*El régimen y las condiciones de uso serán las establecidas en la licencia y en el reglamento para la adjudicación y gestión de las huertas ecológicas, publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 22 de mayo del 2013.*

*Según el artículo 8 de este reglamento, el título de la licencia concedida será «a precario» para el usuario, pudiendo el Ayuntamiento por causas justificadas de interés público revocar la licencia concedida en cualquier momento sin derecho a indemnización alguna por parte del Ayuntamiento.*

*El ámbito de las huertas correspondiente a las asociaciones pasará a disposición de la Fundación Kabia a corto-medio plazo, en virtud de un convenio suscrito entre el Ayuntamiento y la Fundación Kabia. Aunque en principio este hecho no tiene porque suponer un cambio en*



*aldaketarik eragingo ez dien arren, gertatu daiteke baratzeak kendu behar izatea, baldin eta Kabia fundazioak hala erabakitzen badu.*

*el uso de estas huertas, la decisión de permitir dicho uso quedará en manos de la fundación.*

*Erabiltzaile bakoitzak ordaindu beharko ditu:*

*Cada usuario deberá abonar:*

**Fidantza bat**, 100 €-koa. Fidantza itzuliko da baratzearen lagatze-aldia bukatzen denean.

**Fianza** de 100 euros. La fianza se devolverá cuando el beneficiario agote el periodo de cesión de la huerta.

**Urteko Tasa** – Baratzea erabiltzeagatik.

**Tasa anual** – Por el uso del huerto.

*Urtero onartzen diren Ordenantza Fiskaletan eguneratuko dira ordaindu beharreko tarifak. 2022 urterako hau izango, taldeko, ordaindu beharreko tasa:*

*La tarifa a abonar será la correspondiente a las tasas que se aprueben en las ordenanzas fiscales en vigor en cada ejercicio presupuestario. La tasa correspondiente al año 2022 por colectivo será la siguiente:*

|                                      |                        |
|--------------------------------------|------------------------|
| <i>Mugikortasun urriko pertsonak</i> | <i>64,60 € urtean</i>  |
| <i>Langabetuak</i>                   | <i>64,60 € urtean</i>  |
| <i>Tasa orokorra</i>                 | <i>129,20 € urtean</i> |
| <i>Elkarteak</i>                     | <i>129,20 € urtean</i> |

|  |                     |
|--|---------------------|
| <i>Personas con movilidad reducida</i> | <i>64,60 €/año</i>  |
| <i>Personas desempleadas</i>           | <i>64,60 €/año</i>  |
| <i>Tasa general</i>                    | <i>129,20 €/año</i> |
| <i>Asociaciones</i>                    | <i>129,20 €/año</i> |

*Urteko kanon hori banku-helbideratzearen bitartez ordainduko da, urtean behin, frakzionamendu gabe. Kontuan zorduntzeko data azaroaren 10a izango da*

*Este canon anual se abonará mediante domiciliación bancaria, en una sola vez, sin fraccionamientos. La fecha de cargo en cuenta será el 10 de noviembre.*

*Baja eskatzen bada, likidatu egingo da erabilitako hilabetei dagokien zatia.*

*En caso de baja se liquidara la parte correspondiente a los meses de uso.*

*Urtarrilaren 1etik irailaren 30era bitartean emandako alta berriei alta emango zaie erroldan, eta azaroaren 10ean kobratuko dira.*

*Se dará alta en el padrón a las nuevas altas concedidas entre el 1 de enero y el 30 de septiembre y se cobrarán el 10 de noviembre.*

*Urriaren 1etik abenduaren 31ra bitartean emandako lizentziarako, kanonari dagokion zatia hurrengo hilaren 25ean likidatuko da eta hurrengo urtean alta emango da erroldan.*

*Para las licencias concedidas entre el 1 de octubre y 31 de diciembre, se liquidará la parte correspondiente del canon el 25 del mes siguiente y se dará alta en el padrón el siguiente año.*



### 3.- Onuradun izateko baldintzak

Aisialdirako baratze ekologikoak erabiltzeko lizentzien onuradun izan daitezke Tolosako udalerrian erroldatuta dauden pertsonak, baldin eta herrian benetan bizi badira gutxienez esleipena baino hiru urte lehenagotik, eta, gainera, honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- Tolosako Udalaren zerga-betebehar eta gainerako ordainketa guztiak egunean edukitzea.
- Beste baratze ekologiko baten erabiltzailea den bizikidetza-unitate bateko kidea ez izatea. Hainbat pertsona fisikok bizikidetza unitatea osatuko dute ezkontzaz edo bestelako harreman egonkor batez elkarturik badaude, hau da, ezkontideen antzeko harremanez; baita adopzioz zein odol-ahaidetasunez, 3. maila arte; eta afinitatez, 2. maila arte, eta baldin eta etxe berean erroldatuta bizi badira. Kanpoan geldituko dira adiskidetasunagatik edo komeni zaielako elkarrekin bizi direnak. Ondorio hauetarako, erreferentzia-data izango da deialdi hau GAOn argitaratzen deneko egunaren bezpera.
- Eskatzaileak edo bere bizikidetza-unitateko kideren batek ez edukitzea, ez jabetzan, ez gozamen-eskubidean edo alokairuan nekazaritza-jarduerarako egokia den izaera landatarreko lurrik.
- Zigorrik jaso ez izana lehenago aisialdirako beste baratze ekologiko baten jabe izan eta Araudi honetan aurreikusitakoa ez betetzeagatik.

Adingabeen eskabideetan aita, ama edo tutoreen abala aurkeztu beharko da, eta pertsona helduak izango du erantzukizuna, Araudi honen ondorioetarako.

### 3.- Condiciones para ser beneficiario.

Podrán ser personas beneficiarias de las licencias de ocupación de los huertos ecológicos de ocio, las personas empadronadas en el Municipio de Tolosa y que efectivamente residan en la localidad durante al menos tres años antes de la adjudicación, y que cumplan además con los siguientes requisitos:

- Estar al corriente en el pago de las obligaciones tributarias o de otra índole con el Ayuntamiento de Tolosa.
- No ser ningún miembro de la unidad convivencial usuario de otro huerto ecológico. Se entenderá por unidad convivencial la compuesta por dos o más personas, unidas por matrimonio u otra forma de relación permanente, análoga a la conyugal, así como por adopción o consanguinidad, hasta 3er grado, y por afinidad hasta 2º grado, que residan empadronados en el mismo domicilio. Quedará excluida la convivencia por razones de amistad o conveniencia. A estos efectos, la fecha de referencia será el día anterior a la publicación de la presente convocatoria en el BOG.
- No tener en propiedad, ni en usufructo o arrendamiento ni el solicitante ni ningún miembro de la unidad convivencial terrenos de naturaleza rústica, que sean aptos para actividades agrícolas, en el municipio de Tolosa.
- No haber sido sancionado en razón a la posesión anterior de huertos ecológicos de ocio por incumplimiento previsto en el presente Reglamento

Las solicitudes de las personas menores de edad deberán venir avaladas por el padre, madre o tutor, siendo la persona adulta la responsable a efectos de éste Reglamento.



#### **4.- Eskabide-orria**

*Eskabide-orria baldintzen plegu honetako II. eranskin gisa azaltzen dena izango da.*

#### **5.- Eskaerak aurkezteko epea eta tokia**

*Zozketan parte hartzeko, nahitaezkoa da interesatuek beren eskabideak aurkeztea plegu honetako II. eranskinean azaltzen den eskaera-orria erabilita.*

*Eskaera-orriak behar bezala beteta aurkeztu beharko dira, telematikoki edo Tolosako Udaleko informazio bulegoan (Plaza Zaharra 6), 2021 azaroaren 3ra arte, egun hori barne, astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 14:00etara.*

*Epe hau Tolosako alkatearen erabakiaren bitartez luza liteke. Ezarritako epea bukatu ondoren aurkezten diren eskabideak ez dira onartuko, ezta jasota badago ere postetxera epea bukatu aurretik eraman zirela, ez bazaio behintzat Udalari telex, fax, telegrama edo posta elektronikoz bidaltzen eskabide-orria bidalitako dataren frogagiria, postaz bidali zen egun berekoa.*

#### **6.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa**

*Onartua izateko baldintzak egiaztatzeko, eskaera-orriarekin batera honako dokumentazio hau aurkeztu behar da:*

- a) NANaren edo haren ordezkoko beste agiri legal baten fotokopia.*
- b) 3. oinarrian ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentuak edo zinpeko aitortpena (III. eranskineko ereduaren arabera).*
- c) Hala behar denean, langabea, elbarria edo irabazi asmorik gabeko elkartearen izatea egiaztatzen duen dokumentua.*

*Elbarritasuna duten eskatzaileek mugikortasun*

#### **4.- Impreso de solicitud.**

*El impreso de solicitud será el que figura como Anexo II de este pliego de condiciones.*

#### **5.- Lugar y plazo para presentación de solicitudes**

*Para participar en el sorteo, es imprescindible que las personas interesadas registren sus solicitudes conforme al impreso de solicitud que figura en el anexo II de este pliego.*

*Los impresos de solicitud debidamente cumplimentados han de registrarse telemáticamente o presencialmente en la Oficina de Información del Ayuntamiento (Plaza Zaharra 6), hasta el 3 de noviembre de 2021, inclusive, de lunes a viernes, de 8:00 h. a 14:00 h.*

*Este plazo podrá ser prorrogable mediante acuerdo de la alcaldesa de Tolosa. Las solicitudes presentadas con posterioridad al plazo fijado para su recepción no serán admitidas aunque conste que se entregaron en Correos antes de la finalización del plazo, salvo que se remita al Ayuntamiento de Tolosa por telex, fax, telegrama o correo electrónico la justificación de la fecha de remisión de la solicitud en el mismo día que se envió por correo.*

#### **6.- Documentación a aportar.**

*Para acreditar que se cumplen los requisitos para ser admitido, junto a la solicitud es obligatorio presentar la siguiente documentación:*

- a) Fotocopia del DNI o documento que legalmente le sustituya*
- b) Documentos y/o declaración jurada (según modelo del Anexo III) de que cumple los requisitos establecidos en la base 3.*
- c) En su caso, documento que acredite la condición de persona desempleada, minusválida o asociación sin ánimo de lucro.*

*Las personas solicitantes con minusvalía*



*urri iraunkorra dutela frogatu beharko dute, eta honako zehaztasun hauek kontuan izango dira (Gipuzkoako Foru Aldundiak ezartzen dituen ezgaitasun mailak):*

- a) Gurgil-aulkia darabiltenak, behin-behinekoak izan ezik.*
- b) Ibiltzeko nahitaez bi makila behar dituztenak*
- c) D eta H idatz zatiei dagokienez, 7 puntu edo gehiago dituztenak*

*deberán justificar el carácter de persona con movilidad reducida permanente, para lo que se tendrán en cuenta lo siguiente (grados de discapacidad según clasificación de DFG):*

- a) Los confinados en silla de ruedas*
- b) Los que dependan absolutamente de dos bastones para desplazarse autónomamente.*
- c) Los que sumen 7 puntos o más en relación con los apartados D) a H).*

*Ez badute mugikortasun urri iraunkorra izatea ziurtagiri bidez frogatzen, gainontzeko herritarren taldearen zerrendan sartuko dira.*

*En caso de no justificar mediante certificado el carácter de persona con movilidad reducida, se incorporarán al listado general.*

*Tolosako Udalak ofizios egiaztatuko du erroldatzea eta bizilekua hiru urtetik gorakoak direla, arau-hausterik batere ez dagoela eta Udalarekiko zerga-betebehar edo beste mota bateko betebehar guztietan egunean dagoela.*

*El Ayuntamiento comprobará de oficio el empadronamiento y la residencia efectiva desde hace tres años, la ausencia de infracciones cometidas y el cumplimiento de estar al corriente de las obligaciones tributarias o de otra índole para con este Ayuntamiento.*

*Udalak egoki iruditzen zaion edozein dokumentazio gehigarri eskatu ahal izango dio eskatzaile bakoitzari, eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.*

*El Ayuntamiento podrá requerir a cada solicitante aquella documentación complementaria que considere oportuna, a fin de justificar los requisitos exigidos*

#### **7.- Aurretiko zerrenda eta erreklamazioak**

#### **7.- Lista previa y reclamaciones.**

*Tolosako Udalak, eskabide-orrietan jasotako datuak benetakoak direla egiaztatu ondoren, aurretiko zerrenda bat osatuko du eskatutako baldintzak betetzen dituztenekin.*

*El Ayuntamiento de Tolosa, practicadas las comprobaciones oportunas sobre la veracidad de las circunstancias recogidas en las solicitudes, procederá a elaborar una lista previa de aquellos que cumplen los requisitos.*

*Aurretiko zerrenda horretan ez da onartuko bizikidetzaren unitate bakoitzeko eskaera bat baino gehiago. Hori dela eta, bat baino gehiago egonez gero, Udal bulegoetan aurrena erregistratutakoa bakarrik onartuko da.*

*En esta lista previa no se admitirá más de una solicitud por unidad convivencial, por lo que únicamente se admitirá la primera que se registre en las oficinas del Ayuntamiento.*

*Honen ondoren, onartutako eta baztertutako zerrenda Udaletxeko iragarkien panelean eta Udalaren webgunean argitaratuko da. 10 egun naturaleko epea*

*Una vez elaborada, la lista previa de admitidos y excluidos será expuesta en el Tablón de anuncios del Ayuntamiento y en la página web del Ayuntamiento, para que en el plazo de diez (10) días naturales puedan formular*



izango dute zerrendan azaltzen direnek erreklamazioak aurkezteko; baita eskaera onartu ez zaielako zerrendatik kanpo geratu direnek ere.

reclamaciones, tanto los solicitantes integrados en la lista, como aquéllos que no figuren en dicha lista por no haber sido admitida a trámite su solicitud.

#### **8.- Onartutakoen behin betiko zerrenda.**

Jasotako erreklamazioak ebatzita, onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratuko da Udaletxeko iragarkien taulan eta Udalaren web orrian.

#### **8.- Listas definitivas de los admitidos**

Tras la resolución de las reclamaciones, se publicará la lista definitiva de las personas aceptadas y las excluidas en el tablón de anuncios del ayuntamiento y en la página web.

Behin betiko ebazpenaren kontra berraztertze errekurtso bat jar daiteke, edo bestela, Administrazioarekiko auzi-errekurtso bat, hala badagokio, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

Se podrá interponer recurso de reposición contra la resolución definitiva, o bien recurso contencioso-administrativo, si procede, ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia.

Behin betiko zerrendan datu hauek azalduko dira:

Aparecerán los siguientes datos en la lista definitiva:

- Eskabidean azaltzen den pertsonaren nortasun agiria.
- Udalak eskatzaile bakoitzari ausaz esleitutako zenbakia

- Documento de identidad de la persona que aparece en la solicitud.
- El número que el ayuntamiento haya asignado a cada solicitante aleatoriamente.

Behin betiko zerrendan agertzeak ez du esan nahi eskatzaile horrek eskatutako baldintza guztiak betetzen dituenik. Baldintza guztiak betetzen ote dituen berriz begiratu da baratzeak behin betiko adjudikatu aurretik.

El que los participantes aparezcan en la lista definitiva no significa que cumplan las condiciones requeridas. Se volverá a comprobar que se cumplen todos los requisitos antes de la adjudicación definitiva de las huertas.

Esan dugun bezala, eskatzaileen behin betiko zerrendarekin batera emango da lizitazio honen helburu diren baratzen zerrenda.

Como ya hemos mencionado, junto con la lista definitiva de participantes se comunicará la lista de huertas objeto de esta licitación.

#### **9. Adjudikazio-prozedura: zozketa publikoa**

#### **9.- Forma de adjudicación: sorteo público.**

Baratzeak zozketa publiko baten bitartez adjudikatuko dira.

Los huertos se adjudicarán mediante sorteo público.

Behin betiko onartuen zerrendak argitaratzen direnean, zozketaren eguna, ordua eta tokia jakinaraziko dira.

Cuando se publiquen la lista definitiva de las personas admitidas se comunicará el día, la hora y el lugar del sorteo.

Zozketa Tolosako Udaleko idazkariaren aurrean egingo da, edo idazkariak ordezkogisa izendatutako pertsonaren aurrean,

El sorteo se realizará ante el secretario del Ayuntamiento de Tolosa, o ante la persona a la que éste designe como persona sustituta, en el



horretarako jarritako tokian. Sarrera librea izango da zozketa ikusi nahi duten guztientzat.

Aipatutako zozketa eta gorabeheren akta jasoko du Udal idazkariak edo hark horretarako baimendutako pertsonak.

Baratzearen esleipena zozketaren momentuan egingo da, hau da, baratze bakoitzerako adjudikaziodun bat esleitu da.

#### **10.- Adjudikaziodunen behin-behineko zerrenda eta itxarote-zerrenda.**

1.- Adjudikaziodunen behin-behineko zerrenda eta itxarote-zerrenda argitaratuko dira udal iragarki-taulan eta Udalaren webgunean.

Zerrenda horietako edozeinetan azaltzen diren pertsonen erreklamazioak aurkeztu ditzakete zerrenda horren kontra, zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, 3 egun naturaleko epean.

2.- Adjudikaziodunei behin-behineko adjudikazioa jakinaraziko zaie, eta 3 eguneko epea emango zaie hura onartu edo ukatzeko. Uko egitea idatziz egingo da udal informazio bulegoan, Udaten, edo telematikoki erregistratuko da.

Behin-behineko adjudikaziodunak behin betiko bihurtuko dira bete beharreko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzean. Bestela (hau da, egiaztatzen bada esleipendunak ez dituela betetzen plegu honetan eta indarrean dagoen arautegian ezarritako baldintzak), pertsona edo elkarteari dagokion baratzea libre geratuko da eta berriro esleitu da, itxarote-zerrendatik.

Erabaki hori hartzeak zabalik uzten du Tolosako Udalak adjudikaziodunen bat baztertzeko aukera, baldin eta, behin betiko kalifikazioaren unean, ez baditu betetzen

lugar asignado para ello. La entrada será libre para todo aquel que desee ver el sorteo.

De los citados sorteos y sus incidencias se levantará la correspondiente acta por el Secretario del Ayuntamiento o persona que actúe como tal.

La designación del huerto se realizará en el momento del sorteo, es decir, para cada huerto se designará un/a adjudicatario/a.

#### **10.- Lista provisional de adjudicatarios y lista de espera.**

1.- Las listas provisionales de los adjudicatarios y la lista de espera se publicarán en el tablón de anuncios y en la página web del Ayuntamiento.

Aquellas personas que figuren en cualquiera de las listas podrán realizar reclamaciones frente a la misma en el plazo de tres días naturales a contar desde el día siguiente al de su publicación.

2.- A las personas adjudicatarias también se les comunicará la adjudicación provisional de los huertos y se les otorgará un plazo de tres días para poder renunciar o aceptar la misma. La renuncia se hará por escrito y se registrará telemáticamente en Udate.

Los personas adjudicatarias provisionales devendrán en definitivas cuando se compruebe que reúnen las condiciones requeridas. En caso contrario (es decir, si se comprueba que una persona adjudicataria no cumple las condiciones establecidas en este pliego y en la normativa vigente), el huerto correspondiente a esa persona o asociación quedará libre y se adjudicará de nuevo, siguiendo el orden de la lista de espera.

La adopción del citado acuerdo deja abierta la posibilidad de exclusión de alguna de las personas adjudicatarias por el Ayuntamiento de Tolosa por no cumplir con los requisitos para acceder a la adquisición de huertos, en el



*baratzeak eskuratzeko baldintzak.*

*momento de la calificación definitiva.*

**11. Behin betiko zerrenda, itxarote-zerrenda eta adjudikazio prozedura**

**11.- Listas definitivas, lista de espera y proceso de adjudicación.**

1.- Erreklamaziorik gabeko epea pasa ondoren, edo hala badagokio erreklamazioak ebatzita, Tolosako Udalak behin betiko zerrenda onartuko du eta baratzeak esleituko ditu.

1.- Transcurrido el plazo sin reclamaciones, o en su caso, resueltas las mismas, el Ayuntamiento de Tolosa adoptará acuerdo elevando la lista a definitiva, y procediendo a la adjudicación de los huertos.

2.- Era berean, behin betiko itxarote-zerrenda egingo da. Zerrenda hori baratzea edukitzeko baldintzak bete bai, baina adjudikaziodun izan ez direnek osatuko dute.

2.- Al mismo tiempo, quedará confeccionada la lista de espera definitiva integrada por aquellos solicitantes que reuniendo los requisitos exigidos no hayan resultado adjudicatarios de alguna huerto.

*Itxarote-zerrenda hutsik geratutako baratzeak adjudikatzeko erabiliko da; alegia, hasieran hautatutako batek uko egin edo galtzen badu adjudikaziodun izaera. Kasu horretan, baratzea baratze horrek lehen zuen onuradunak kontsumitu gabeko emakida-aldirako adjudikatuko da.*

*La lista de espera surtirá efectos en orden a la adjudicación de huertos vacantes, en caso de renuncia o pérdida de la condición de persona adjudicataria por las inicialmente seleccionadas. En ese caso, la adjudicación del huerto se realizará por el plazo de concesión no consumido por el anterior beneficiario de dicha huerta.*

3.- Behin adjudikazio-prozesua itxi eta behin betiko itxarote-zerrenda eratutakoan, eskabide gehiago aurkeztekotan, I. eranskinean dagoen inprimakia bete behar da. Ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileak itxaron-zerrendan sartuko dira, zerrenda horretan sartuta daudenen atzetik betiere, eta eskabideen ordena kronologikoan.

3.- Una vez cerrado el proceso de adjudicación y conformada la lista de espera definitiva, si se presentaran nuevas solicitudes, estas deberán realizarse cumplimentando el formulario del anexo II. Los solicitantes que cumplan con los requisitos establecidos entrarán a formar parte de la lista de espera, siempre por detrás de las personas ya inscritas en dicha lista y en orden cronológico de las peticiones.

*Eskabide berri horiek onartzeko alkatearen baimena beharko da.*

*La admisión de estas nuevas solicitudes deberá ser aprobada por el Alcalde.*

4.- Lizentziak emateko gehienezko epea pasatakoan, 4 urte, Udalak beste deialdi bat egingo du baratzeak adjudikatzeko; horretarako, oinarri eta baldintza berriak onartu litezke.

4.- Una vez trascurrido el periodo máximo de la concesión de las licencias, establecido en 4 años, el Ayuntamiento realizará una nueva convocatoria para la adjudicación de las huertas, para lo que podrá aprobar nuevas bases y condicionantes.

*Aurreko denboraldian baratzeak erabili dituzten onuradunek deialdi berri horretan izena eman ahal izango dute.*

*Las personas beneficiarias que hayan hecho uso de las huertas durante el periodo anterior podrán volver a apuntarse a esa nueva*



convocatoria.

**12. Behin betiko adjudikazioaren ondorengo betebeharrak.**

- *Prezioa ordaintzea*
- *2013ko maiatzaren 22ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako baratze ekologikoen adjudikazio eta kudeaketako arautegian aipatzen diren baldintzak betetzea.*
- *Fidantza ezartzea.*
- *Esleipendunak, baratzeko lanetan laguntzeko, 3 laguntzaile izenda ditzake. Horretarako pertsona horien NANaren kopia aurkeztu beharko du Udalean.*

**13. Erregimen juridikoa**

*Oinarri hauetan aurreikusita ez dauden gainontzeko egoeretan, 2013ko maiatzaren 22ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako baratze ekologikoen adjudikazio eta kudeaketako arautegia hartuko da kontutan.*

*Tolosan, 2021ko urriaren 19an.*

**BIGARRENA.-** Onespén erabakia zein lurramendiko Baratze Parkeko baratzeak esleitzeko deialdia argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eskualdean hedapen gehien duten egunkarietan eta Udaleko iragarki taulan. Halaber, Udalaren egoitza elektronikoan ere eskuragarri jartzea.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 11:45ean.**

**ALKATEA**

**IDAZKARI AKZIDENTALA**

**12. Obligaciones posteriores a la adjudicación definitiva.**

- *Pago del precio*
- *Cumplimiento de las condiciones establecidas en el reglamento para la adjudicación y gestión de las huertas ecológicas publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 22 de mayo del 2013.*
- *Depósito de la fianza*
- *Cada persona beneficiaria podrá autorizar a 3 personas como ayudantes. Para ello, deberá facilitar al Ayuntamiento copia del DNI de estas personas.*

**13.- Régimen jurídico.**

*En todas las situaciones que no se hayan previsto explícitamente en estas bases, se respetará lo regulado en el reglamento para la adjudicación y gestión de las huertas ecológicas publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 22 de mayo del 2013.*

*En Tolosa, a 19 de octubre de 2021.*



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2021IGBA0022-2021-10-19 Gobernu batzarreko akta/2021-10-19 Gobernu